

## **KOSTUEN EGITURA:**

Gure enpresako kostuen egitura honakoa izan da; bi alderditan sailkatu ditugu gastuak, alde batetik inbertsioa, eta beste aldetik gastuak.

Lehenik eta behin gure dendarako hainbat altzari erosi behar izan ditugu, altzariez gain, ordenagailua furgoneta, etab. Guzti horiek gure enpresarentzat inbertsioak dira.

Bestalde, dendako alokairuaren alta eta faktura, argiaren alta eta faktura, uraren eta telefonoarenak izan dira bestelako izan ditugun gastuak.

Datorren hilabeteetan ez ditugu seguruenik horrelako gasturik izango, zeren eta, altak eginak ditugunez, fakturak soilik ordaintzea tokatuko zaigu. Eta beharreko altzariak ditugunez, ez daukagu zertan erosi berriro. Baina bai erosi beharko ditugu dendan salduko ditugun produktu guztiak.

